

## **IRAGARKIA**

Jakinarazten da, Bermeoko Udalak 1996ko otsailaren 9ko Osoko Bilkuran ondorengo Ohoretako eta Handigarrietarako Araudiari hasierako onespina emon deusola. Apirilaren 2/85 Toki Errejimeneko Oinarriak Arautzen dauzan Legearen 49.artikuluaren xedatutako beteaz, jendaurrean jartzen da, hogeita hamar(30) eguneko epean erreklamazio eta jazarpenak aurkeztu ahal izango diralarik. Bat ere aurkeztuko ez balitz behin-betikoz onartua ulertuko litzateke.

Bermeon, 1996ko martxoaren 20an.—Alkatea

### **Testua**

#### **Ohoretarako eta handigarrietarako araudia**

Bizitzako giza alderdi ezbardinetan nabarmendu diran pertsonen meritu, zerbitzu edo egite bereziak onetsi eta saritzea herri erakundeek, meritu horreek gizartearen aurrean eredutzat jarri, bultzatu eta goraltzeko baliagarria izan dan jarrera bat izan dogu beti. Bai gizarteari orokorrean eta erakundearen eragineko guneari jagokon kondaira barruan egindako ekarpen bakoirra eta gailena publikoki onartu, eskertu eta estimatu nahi da, baita.

Bermeok, bere Udalaren bidez, inoiz ez dau itzi, bizitzaren alderdi, iharduera eta disziplina ezbardinetan era ohargarri eta nabarian gailendu diran bermeotar edo bermeotarrak ez diranak goratu eta publikoki onesten, batez ere, pertsona edo egitate, edo biak batera, gure herriagaz zerikusia izan badabe.

Zalantzarik ez dauka, ordea, onespina hori era mugatu eta murrizteaz aplikatu behar dala. Ugaria izateak ohorea gitxitu eta eraldatu leiteke. Horrela ba, mugatua izan behar dau bere emoitza, nahi eta nahi ez.

Udalaren Antolakuntza, Funtzionamendu eta Errejimen Juridiko Araudiak ahalmentzen dauz lege aldetik Udalak, zordun egiten diran pertsona edo erakunderen aldeko ohorezko izendapenak erabaki daiezan, horretarako espediente bat zabaldurik eta ahalmen horren aplikazioa ahal danik gogorren ezarririk.

Araudi berezi batetan isladatu diran araututako irizpide zehatz eta orokorreari loturik jardun behar dabe Udalek, gai honetan.

Horregaitik, honelako ohorezko erabakiak hartzeko Udalek daben ahalmena gaitzeko oinarri legez egokia dala Araudi hau, uste da.

Bere izaeragaitik eta esandako zioekaitik ahalmen hau larregitasunez aplikatu izan badau ere Bermeoko Udalak, derrigorrezkotzat jotzen da, ordea, era

egokian arautzea, Udalak bere buruari muga batzuk jartzeko baino ez bada ere, ohore horreen emoitzen.

Honela ba, Bermeoko Udalaren Osoko Bilkurak xedatzen dau

## **I. Atala Arau Orokorrak**

**1. Artikulua.** Bermeoko herria eta baita gizartea orokorrean, goratzeko eta handitzeko, funtsean, diran kultur, kirol, zientzi, arte, giza edo ekonomi arlo edo beste edozertan izandako meritu bereziak, zerbitzu nabariak edo lan baliagarriak edota bete edozelako ekarpen saritzeko, Bermeoko Udalak emon ahal dauzan ohore eta goraipamenak arautzea dau Araudi honek bere xedea.

**2. Art.** Araudi honetan azaltzen diran goraipamen guztiak bizi diran artekoak dira, 16. artikulua ezarritakoa izan ezik, eta ohorezko izaera baino ez dabe, horregaz inolako administrazio, fiskal edo ekonomi mailako eskubiderik emoten ez jakelarik.

**3. Art.** Bermeoko Udala barruan dalarik eta menpeko edo buru, funtzio edo zerbitzu harremanekaz, Administrazioan kargu handirik dabenei ezin izango jake honelako ohorerik emon, zio honeek dirauen bitartean.

## **II. Atala Ohore eta Goraipamen Motak**

**4. Art.** Bermeoko Udalak, eta lehentasun honetan, emon leitekezan ohore eta goraipamenak honako honeek izan daitezke:

- a) Herriko Seme/Alaba Kutunaren Izendapena.
- b) Herriko Semetzakoa/Alabatzakoaren Izendapena.
- c) Bermeoko Herriko Urrezko Domina.
- d) Bermeoko Herriko Zilarrezko Domina.

**5. Art.** Udalerri honetan jaiotako pertsonak bakarrik jaso daikie Bermeoko Seme/Alaba Kutunaren izendapena. Bertan jaio ez diran edonongoek izendatu daitezke Semetzakoa/Alabatzakoa.

**6. Art.** Urrezko eta Zilarrezko Dominak, pertsona fisiko, bizi edo hildakoei eta baita pertsona juridikoei emon daitezke.

**7. Art.** Honako hau izan daiteke goraiamen kopururik handiena:

Seme/Alaba Kutuna: 3

Semetzakoa/Alabatzakoa: 3

Urrezko Domina: 4

Zilarrezko Domina: 6

Hutsik egon beharko dau aurretiaz, goraiamena egin ahal izateko.

Titularrak pertsona juridikoak diranean, hutsuneak, emote erabakia hartzen dan egunetik hasitako 10 urteko epean sortzen dirala, ulertuko da.

Hilondoan emondakoak ez dira zenbatuko Urrezko eta Zilarrezko Dominen gehiengo kopuruaren eraginetarako.

Ohore eta Goraiamenen Liburu batetan agertuko da Araudi honen barruko izendapenekaz sarituak izan diran guztien zerrenda, egoera guztiak azaldurik. Idazkari Orokor eta Bermeoko Udalaren Protokoloburuaren esku egongo da.

**8. Art.** Diploma-Egiaztagiri baten eta jagokon ezaugarritz ziurtatuko da tituluen emoitza, 1 eta 2 Eranskinetan agertzen diran diseinuen arabera. 4. Artikuluan agertzen diran kasu guztietarako bakarra izango da ezaugarria, eta Bermeoko Udalaren Lehentasun, Zeremonial eta Protokoloari buruzko Araudiaren 24. artikulua azaltzen dauan Insignia edo Dominan zehaztuko da. Aipatutakoen arteko lehen artikulua a) eta b) atalei jagokezanak urrea eroango dabe erantsita goi aldean, eta dibisa modura, erliebean, «Bermeoko Herriko Seme/Alaba Kutuna» edo «Bermeoko Herriko Semetzakoa/Ala-batzakoa» idatzita.

4. Artikuluko c) eta d) hizkiek adierazten daben ezaugarriak, esandakoak bezalakoak izango dira, baina urre nahiz zilarrezko inskripzioetan «Urrezko Domina» edo «Zilarrezko Domina» ekarriko dabe. Urre edo zilar margoetako harizkoa izango dalarik kordoia, emoten dan domina motaren arabera.

Bakoitzaren atzeko aldean, tituluaren izena eta goraiamena emotea erabaki dan eguna agertuko da.

Diploma-Egiaztagiriaren berezitasunak, neurriak eta inskripzioa, Araudi honen Eranskinean isladatzen dira.

**9. Art.** Urte bakoitzaren barruan goraldutakoak, Udal honetako Lehentasun, Zeremonial eta Protokola Araudiaren 12. artikuluko 3. Arauan agertzen dan Udalbatzaren Komitiban parte hartzeko gonbidapena izango dabe, hurrengo iralaren 8an.

### **III. Atala Jardunbidea**

**10. Art.** Araudi honetan aurrikusten diran ohore eta goraipamenak emon ahal izateko, derrigorrezkoa izango da, jagokon espedientea zabaltzea. Goralduek nahi den pertsona edo erakunderen meritu edo egoerak egiaztatuko dira espediente honetan.

**11. Art.** Ohore edo goraipamen honeetariko baten emote – espedienteari hasiera emoteko, Gobernu Batzordearen erabakia beharrezkoa izango da.

**12. Art.** Idazkaritza Orokorren ardura izango da, meritu edo egoeren justifikazio espedientea bideratu eta tramitatzea, zerbitzu, ekintzak eta egitateak era egokian agertarazteko beharrezkoak liratekeen informazio eta frogak sarturik.

**13. Art.** Espedientearen instrukzioa amaitu ondoren, egindako ikerketa, saiaketa eta frogen ondorena azalduko dau zehaztasunez, tramitatutako espedienteagaz batera Kultura Batzordera bialduko daualarik.

Espedienteari buruzko bere diktamena emongo dau Batzorde honek, Udal Osoko Bilkurara eroango daualarik, emoten dan sari mota proposatuz.

**14. Art.** «Seme/Alaba Kutuna» edo «Semetzakoa/Alabatzakoa» izendatzeko eta «Urrezko» nahiz «Zilarrezko Dominak» emoteko, Udalbatzeko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren baiezko botoa beharko da.

Egiaztagiri zehatzez adieraziko jako interesadunari Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

**15. Art.** Bereziki, hildakoei ohore eta goraipamenak emonez gero eta egoerak horrela eskatzen badau, ezarritako jardunbidea alde batera itzirik emon leitekez, Alkate-Udalburuak proposamena eginik eta Udal Osoko Bilkurak onarturik, aurreko artikuluan agertutako quorumagaz.

**16. Art.** Bideratuko dan espedientea zabaldu aurretik, eta ohorea edo goraipamena emoteko era eta berme bardinekaz, saritutako pertsona horri emote-ekintza egitea ukatu ahal izango dau Udalak, ordurarteko bere jarrera aldatuz goralduek artean agertzeko ez dala gai gertatuko balitz.

### **IV. Atala Goraipamenen Ezarpena**

**17. Art.** Ahal danik iragartasunik handiena emongo jako ohore bakoitza emoteko orduan, horretarako sortzen dan Ohore eta Goraipamenen Liburuan inskribaturik.

**18. Art.** Alkate-Udalburuak emongo dauz Goraipamenak Udaletxean ospatuko dan ekintza ospetsu eta publikoan. Udalbatza eta kasu bakoitzeko egoeren arabera gonbidatuak izango diran Aginte eta ordezkariak ere ekintza horretan izango dira. Gauza berezi legez ospa daiteke ekintza Udaletxea ez dan toki batetan.

Goraipamenak hildakoei emonez gero, saritutakoen senideren batek hartuko leuke saria.

## **XEDE IRAGANKORRA**

*Bakarra.*—1979ko apirilaren 22tik gora, Araudi honetako 4. artikulua agertzen dauzan Udalak emondako goraipamenak, Ohore eta Goraipamenen Liburuak ezarriko dira eta 7. artikulua bakoitzarentzat jarritako gehiengo kopuruaren zenbaketarako izango dira kontutan.

## **AZKEN XEDEA**

*Bakarra.*—Ezarritako tramiteak betetu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuta agertzen dan hurrengo egunean sartuko da Araudi hau indarrean.

**Eraskinak**

**(I. Eraskina)  
Bermeoko Udala**

**ZIURTAGIRIA  
SEME/ALABA KUTUNA**

**Bermeoko Udalak,**

\_\_\_\_\_ Jri/Ari

Herriko Seme/Alaba Kutunaren izendapena ematen dio.

Bermeo, \_\_\_\_\_

Jasotzen duena,

Alkatea,

**(II. Eraskina)  
Bermeoko Udala**

**ZIURTAGIRIA  
SEMETZAKOA/ALABATZAKOA**

**Bermeoko Udalak,**

\_\_\_\_\_ Jri/Ari

Herriko Semetzakoa/Alabatzakoa izendapena ematen dio.

Bermeo, \_\_\_\_\_

Jasotzen duena,

Alkatea,

**Bermeoko Udala**

**ZIURTAGIRIA  
URREZKO/ZILARREZKO DOMINA**

**Bermeoko Udalak,**

\_\_\_\_\_ Jri/Ari

Urrezko/Zilarrezko Domina ematen dio.

Bermeo, \_\_\_\_\_

Artzenn duena,

Alkatea,